


Euskal AEko industri jarduera %3,3 gehitu zen 2019ko abuztuan

%0,7ko gehikuntza dago 2019ko lehen zortzi hiletan

Eustaten datuen arabera, 2019ko abuztuan %3,3 gehitu zen Euskal AEko industri produkzioa lan-egutegiko baldintza homogeneousetan, 2018ko hil beraren aldean. 2019ko lehen zortzi hiletan %0,7ko hazkundea izan da, 2018ko aldi beraren aldean.

Urtaroen eragina zuzenduta, %3,4 gehitu zen Euskal AEko industri produkzioa, 2019ko uztailearekin alderatuta.

Euskal AEko industri produkzioaren indizearen urte-arte aldakuntza-tasa (%)



Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2019ko abuztuko indizearen bilakaerak, 2018ko abuztukoaren aldean, emaitza ezberdinak dakartza sektore industrial handietan. *Energia* %23,7 gehitu da, *Bitarteko Ondasunak* %0,5 igo dira eta *Kontsumoko Ondasunak*, oro har, %6,1. Azken horien barruan, *Kontsumoko Ondasun Iraunkorrak* %17,8 gehitu dira eta *Ez-iraunkorrak* %4,2. *Ekipoko Ondasunak*, aldiz, %8,3 jaitsi dira.

2019ko abuztuko hil arteko aldakuntza ere, 2019ko uztailekoaren aldean, zeinu ezberdinetakoa izan da industri talde handietan. *Energia* %10,6 gehitu da, *Bitarteko Ondasunak* %1,7 eta *Kontsumoko Ondasunak*, oro har, %4,8. Azken horien barruan, *Kontsumoko Ondasun Iraunkorrak* %16,9 gehitu dira eta *Ez-iraunkorrak* %2,0. *Ekipoko Ondasunak* %4,7 jaitsi dira.

Euskal AEko industriako pisurik handieneko sektoreen artean, hazkundeak 2019ko abuztuan, urte artean, hauek izan dituzte: *Energia elektrikoa, gasa eta lurrana*, %44,0ko igoerarekin; *Kautxu eta plastikoa*, %9,6ko igoerarekin; eta *Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industriak*, %0,4ko hazkundearekin.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Sektore nagusiak. Urte arteko hazkunde-tasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	-0,6
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurrana	44,0
09 - Kautxua eta plastikoak	9,6
13 - Makineria eta tresneria	-5,0
14 - Garraio-materiala	-17,0
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	0,4
12 - Material eta tresneria elektrikoa	-2,5
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	-2,5

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

(1) Industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Alderantzizko zentzuan, jaitsierarik handienak, sektore hauetan: *Garraio-materialean*, izan duena %17,0ko urte arteko jaitsiera; eta *Makineria eta ekipoa*, %5,0 jaitsi dena.

Lurraldeetan, Industri Produkzioaren Indizearen abuztuko urte arteko eboluzioa zeinu ezberdinekoa izan da hirurentzat: Bizkaian %14,1 igo da, baina Araban %9,5 jaitsi da eta Gipuzkoan %1,5 egin du behera.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Hazkunde-tasak. Behin-behineko datuak. 2019ko Abuztua

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazionalizatuak	
	Abu2019 / Abu2018	A(Abu2019) / A(Abu2018)(*)	Abu2019 / Uzt2019	Uzt2019 / Eka2019
Indize orokorra				
Euskal AE	3,3	0,7	3,4	-1,7
Araba/Álava	-9,5	-4,1	-4,4	0,2
Bizkaia	14,1	3,7	9,7	-1,1
Gipuzkoa	-1,5	0,7	1,7	-3,7
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	6,1	3,0	4,8	-2,4
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	17,8	3,2	16,9	-9,5
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	4,2	2,9	2,0	-0,7
Ekipo-ondasunak	-8,3	-0,3	-4,7	-2,6
Bitarteko ondasunak	0,5	-0,4	1,7	-1,1
Energia	23,7	4,8	10,6	2,0

(*) 2019ko urtariletik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2018eko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62